

Zaharrak eta berriak

Har pipa, eta jar gaitezen patxadan, gauzak lasai pentsatzeko.

Azkeneko boladan, gure arteko diferentzia publikoak asko gaitzatu dira. Ezkertiarrek direla behin, eta eskuindarrak direla hurrengoan. «H» dela, edo ikastolak direla: haserre asko da. Batzuk hestu eta larri dira, beste larri eta hesturen batzuen esanek larrituta. Humore txarraren boladan gaude. Baita nazkatuta ere, denak denarekin nazkatuta daudela, esango litzake.

Zer ari da Euskal Herrian pasatzen? Istiluak ikastoletan, istiluak idazleen artean, istiluak idazleen eta Euskaltzaindiaren artean, euskaltzainen beren artean berdin, aldizkari eta Editorialen artean istiluak, Editorialen nahiz aldizkariaren barruan ere istiluak eta istiluak nonahi. Istilumendi onik bada, ezer onik bada behintzat, Euskal Herrian.

Jende asko dago egoera honekin nazkatuta. Denak, dirudienez. Baina egoera hau bera, neurri handi batetan, nazkak ez bestek sortua dugu bera ere, ezpairik gabe.

HAU EZ DA AZTERKETA BAT

Tensio altuan bizi dugu egunoroko bizitza, eta geroz eta sarrigabe leher egiten digu bizitza honek, izkinaren baitatik. Datoak ugaldaz doaz, Kintanaren behinotako Ukraina eta egunotako Haranburu-Altunarena Hiltzaureraren artean. Esplosioak bezala dira. Bistan dago, ez dagoela istilu horiek denak berdintzerik eta zaku berean sartzerik. Oso diferentek dira, bai lan haiek sortarazi zituzten problemak (berdin alpa nezake hemen Arrasate, Zumai, Andoain edo beste makina bat istilu) eta baita gero halekin sortu direnak ere. Problema on benetako azterketa batek, kasnok banan-banan tratatu beharko litzake. Bakoitzen aurrez-emanak, leher egiteko forma, tartean ziren pertsonen eskuarte eta beste ikusiz.

Nik ez dut hori egingo. Situazio jeneralari buruz ohar jeneral batzuk egitera bakarrik mugatuko naiz. Konparatistika piska bat, axaletik. Eta juezarena edo profetarena, ezinbestezkoa gertatuko den baino gehiago batik-bat, jokatu nahi gabe. Zer bait, ezinbestezkoa izango da, eta barkatuko ahal zait.

Soluziorik ez da bilatuko. Galdera honek bakarrik daturiko gaitu: zer ari da gertatzen? Eta —oraingoz— ez beste honek: zer egin? Eta lehenengo haren ere, axal samarreen bakarrik: beraz, zer ikusten da? Denok bait dakigu, fenomeno sozialak izobergen, izut-mendien antzekoak direla: punta bakarrik dutela agrian. Bestea izakuntan dago. Eta hemen izakuntzako izakuntan utziko dira.

HAZALDI BERRIA

Gure gauroko egoeraren esplikazioa, gure azoko egoeran bilatu behar da. 64/65 urte aldera, gehienbat. Urte haietan mundu berri bat agertzen da: Mirande, Aresti, Txillardegi, Otsalar, etabar. Belau-naldi literario berria zen, eta mundu berri bat zekarren. Beharbada hobeto esango litzake beste modu honetan: hazaldi hau gurasoena ez bezalako mundu berri batetan bizi zela (berritasun guziki nolakoak bait dira, noski). Mitxelena Leturiaren egunkari ezkutuari (1957) "giro berrien seinalegarri" zeritzan. Berdin juzgaten zuen Peru Leartzakoren agerpena (1960). Lau urte geroago, 1964ean, San Martinek hitzokun agurtzen zuen Arestiren Harri eta Herri: "aize berri dakartzak euskal poesiaren erresumara, arnasa berriak izakuntza zarrari".

Geroxago joera politikoa berriak ere agertu ziren, makina bat zalapartarekin gainera.

Zaharrak zahar eta berriak berri, ez zituzten zahar denek berriki ongi hartu, eta haien lana "euskeraz zegoelako" izan ez balitz, okerrago hartuko zituzketen. Berrioi asko "barkatzen" zitzaion, euskeraz jardutearren. Baina, funtsean, ez hazaldi berri honen mentalidadea, ez problematika, ez estiloa, ez jasak, eta ezta euskera bera ere ("mordoiola"), gustatzen zitzaizkien, makina bat nekerekin gerra ondorenean superbizi ziren lehenagokoei. Sasiko umeak ziren berriki, nolabait esateko. Hazaldi berri hau, euskeraz baino askoz gehiago erderaz irakurritakoa zen. Ezagutu, berriki doi-doi ezagutzen zuten gure tradizioari batere. Eta ezagutzen zutena ere baino gutiago onartzen zuten, onartu.



Gerra aurretik zetozenak, gerra aurrearekin identifikaturik sentitzen ziren. Gerokoak identifikazio hori falta zitzaion, edo ez zuten berezkoa behintzat (eta badirudi, gerora ere batzuek ez dutela lortu, eta gerra aurrea eta gerra "beste batzuen" kontu antzean juzgaten dituztela). Gerra egin zutenek, olatu faxistaren azpian ere, lehenagoko indarrari eusten ahalegiten zuten. Erresistentziari lotu zitzaizkien, hitz honen esanahi hertsienean. Ez gintzela ito behintzat! Beste giza eta modu batzukin agertu bazen ere, berebiziko atsedena izan behar zuen belaualdi sofitrua eta merezitu honentzat, hazaldi berria burua jasotzen ikustek: bazezeten ondorengoko. Erreleboa.

Geroxago, Europa guziko moduan, hazaldi berriari "uhin berria" edo olatu berria esaten zitzaion. Atzera ahaztu den izendapen bat.

"Uhin berriari" ez zitzaion kritika eta eraso gogorrik faltatu. Horra Txillardegi eta Aresti, lekuko. Batez ere Orixe haundiak kopla gutirekin esaten zituen esatekoak. Ta Orixe bazen norbait. Baina sekretotan, zaharretako askok simpatia eta begiramendu haundiarekin ikusten zituen gazteak. Nolanahi ere, gerra ondorenean bildur izugarria zegoen, gureak egin zuela. Ta faxismoaren eskoletatik pasatako gazteak hain gartsuki euskaltzaleak, zaharren itxaropenak berak superatzen zituen, apika.

DIFERENTZIETATIK KONTRADIZIOETARA

Bolada hori azaltzen ezin orain lutzatuko naiz. Baina inportante litzake hau: hazaldien arteko diferentzietan orduan ez zitzailela, defektu inportantzia, eman. Diferentziaok desarrolloarekin beraz berdinduko zirela, pentsatzen zen agian. Horiek gazteen gatzekeriak zirela, eta gazte izatea, denborarekin beraz sendatzen den gaitza dela.

Haatik ere, belaualdi berria ez da tradizioa itzuli, ez da tradizioan asimilatu. Eta diferentziak, tipiagotu ordez, larriagotu egin dira.

Beharbada orduko zaharrak beren temen setatuegirik zeuden, eta ez zitien denboraren berritasunari antzeman. Bidegabeki erasota, zapalduta eta persegituta, oharkabean gerra aurrea idealizatu zuten, eta gazteengandik horixe bera itxaro zuten. Beren atzean jarriko zirela, komando diziplinatu baten moduan segituko zirela. Zaharrei lehenagoko egun hobeen oroitzapenak indar ematen zien. Gazteek ez zituzten egun haiek ezagutzen.

Beharbada gazteak beren buruetan sinestuegirik zeuden. Mundua deskubritu duten ameslari amorratuak izango ziren. Ezagutzen ez zituzten gauzak kondenatuko edo bedekintatuko zituzten. Dena den, hazaldien arteko mediazioa, komunikazioa bizia, faltatu zen. Eta oraingo problemarik eta premiarik haundienetako bat, oraindik ere, orduan egin ez zen hori lehenbailahean egitea, iruditzen zait. Gainera, edozein hazaldik bezalaxe, haren ere gurasoena "superatze" asmoa zuen, noski. Ta apenas edukiko zuten astirik, "zaharrei" entzuten egoteko.

Zentzugabekeria litzake, orduko errudunen bila haseta. Seguru asko, kondizio haietan gertatu zen bezalaxe gertatu, beste erremedioarik ez zegoen. Nolanahi ere, zaharrei eusten eta defendatzen ahalegin beharragatik, gazteak konkistatu nahiait, tradizio faltagatik eta gatzetasunagatik, eta bide arteko mediazio faltagatik, talde bien arteko diferentzietan ez zitzaion behar haina begiratu.

Hazaldi berriak ez zuen zaharra berrizatu: izerdi berria ez zen adar zaharretara aligatzen. Eta hazaldi zaharrak ez zion berriari tradizioa pasatzen. Etendura bat sortu zen, horrela. Beraz, zaharrei mundu berria geroz eta arrotzago bihurtzen zitzaion; berriek geroz eta gutiago

esaten ziren zaharren munduak. Sustraiak tradizioan nahitaezkoak bait dira, berriki tradizioari atxiki zitzaizkionean, ez zituen gurasoen tradizioari heldu, aspaldiko mendeetara itzuli ziren batez ere: "klasikoetara". Baina kultura, errealdade sozial-politiko orokorrarekin hestu-hestu bateginik bait dago, gurasoen tradizioen gainetik klasikoetara itzultzeaz, gure historia sozio-politiko eta kultural berriareko problemarik, ikuspidetik, esperantziarik eta ondasunik hoberenak gaitzen uzten ziren. Gurasoen tradizioak eman behar zuten, eta klasikoek ezin eman zeraketa gabe hazi da belaualdi berria. Jarraitasunak bakarrik eman ezazakeena gabe. Guri horixe gustatu ala ez, gure gurasoen ondorengokoak bait gara, eta ez aspaldiko haiek, hank gehiago gustatzen bezalazigu ere. Klasikoengana bai, itzuli beharra zegoen. Baina baita gurasoengana ere. Etendura batea ondokoak bait gara.

Gero, piskana-piskana, noispait itxaro zitekeenaren arras kontra, hazaldi berria dena haundiparatu eta krisian jarriz joan da: politika, literatura, moralak, kultura, Eliza, fedea, tradizio inkarnatzen zuten pertsonak, planteamondeak eta ikuskerak. Dena. Ortografia bera ere (horribile dictu!).

Eta honez gero, lehenagoko belaualdien arteko diferentzietan lekuan, kontradizio nabarmenak eta burruka deklaratu dazuzkagu. Burruka honetan norberriak eta arrotzokiak personalizatzeak, harrokeriak eta ignorantziak, setak eta marrokeriak, zerikusit haundia edukiko dute, aldizka. Baina hori dena garbituta ere, guzi hori bazterta-ko bagenu ere, funtsean problema horixe geldituko lirake. Zer bait errazago izango litzake, noski, burruhausteko konpontzea. Baina hori egitea, oraindik ez litzake, soluziorik aurkitzea. Dagoeneko ia ez.

Joxe Azurmendi



YOGUR
GURELEJA
GOGOZKOENA



ETXeko-ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba' dezuz
ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilili bati
Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jaboia bakarra
Etxeko-andrearentzat neskerarik egokiena.

JABON LAGARTO